

Astekaria

BARRREN

elgoi



**Nagusiak gazte
sentitzen direnean**



*Erakusketa zuzenbide
berri honetan:*

Santa Ana 3
Tfnoa: 74 36 34

- "Rotura de Puente Termico" dun leihoak edozein koloretan.
- Bainu manparak
- Ofizinak banatzeko manparak
- Aluminio eta PVCzko pertsianak

3 LAU HANKATAN

"Sidaren egoerak guztion laguntza eta kontzientzia hartzea eskatzen du eta lehenengoz konfidantza osoa sortuko duen jokaera nagusi bat hartu beharrean gaude". **Joxin Arregi**

6 ERREPORTAIA:

DROGAREN KONTSUMOAK GORANTZ EGIN DU ELGOIBARREN

Zer gertatzen da Elgoibarren? izenburupean ERROTATXO elkarteak drogari buruzko erreflexio prozesua hasi nahi du.

8 ARRAZOIAK ERDIBANA: BAZKOL OSTEAN SIESTARIK?

Jone Ajuria

"Askok, denbora galtzea edo zahar eta umetxoen gauza dela pentsa dezakezue. Ni, oster, siestazale amorratua naiz".

Itziar Goñi

"Komenigarria al da siesta egitea, honek esnatu ondoren digestioa ondo ez egiteagatik edo izaten dugun ondoez hori, umore txar hori edota mozolokeria edo tontera hori ekarri behar badu?".

12 BERBETAN: ALEX GARATE

"Akonkagua zapaldu duen azken elgoibartarra".

14 KIROLA:

GAIA: NAGUSIEK PASODOBLEAREN ERRITMORA EGITEN DUTE GIMNASIA

ELKARRIZKETA: **Pablo Quintano**

"Aurten azken urtea da neretzat".

16 ELKARTEETATIK BUELTAN

KIMETZ: HIZKUNTZA, KULTURA ETA OHITURAREN ALDE LANEAN

17 KULTURA

EDUARDO ARRILLAGAREN ARGAZKIAK EUROPAKO MAGAZINE GARRANTZITSUENEAN

PREMAZKO TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulategia: Larrialdiak	741155
Txanda hartzeko	743354
Alkoholiko Anonimoak	740385
D.Y.A (anbulantzia).....	464622
Gurutze Gorria	743864
Mendaroko Ospitala.....	756264
Drogomenpekotasun Zerbitzua (Anbulatorioa)	743936
Odol Emaileen elkarte.....	741190

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak	740442
PESA (Eibar)	112131
Taxi Geltokia	740898

UDALA

Euskara Zerbitzua	744366
Kultura eta Kirol Zerbitzua.....	742158
Ongizate zerbitzua	743736
Udaletxea	741050
Udaltzaingoa	741394

BESTELAKOAK

Caritas	740142
IMI	741196
Kontsumo Bulegoa (OMIC).....	743088
Liburutegia.....	743525
Musika Eskola.....	742145
Polikiroldegia.....	741361
Postetxea	741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza	740296
Zaharren Biltokia	740526

IKASTETXEAK

Herri eskola.....	74 08 79
I.M.H.....	74 41 32
Institutua	74 02 67
Ikastola	74 27 00
L.H.I.....	74 31 00
Pilar Ikastetxea.....	74 13 31

HARRIGORRIGOIKOERROTABERRITARRAK



LAU HANKATAN

Joxin Arregi

Guztiok batera

Azkenengo aste hauetan Gipuzkoako Foru Aldundian guztiok eta elgoibartarrok akaso bereziki ikutzen gaituen arazo bati eutsi diote.

Eztabaidaren mamia SIDA gaixotasuna sufritzen duten pertsonen egoera eta beharrak zehaztea zen. Zeintzuk diren behar horiek eta zer eta zein den gizarteak eman behar duen erantzunak ezin izan zituen batu han izan ziren pertsona eta talde ezberdinak.

Ez dira egun asko Araban egin den ikerketa sakon eta zabal bat neure eskuetara etorri zela. Bertan, sendagile, harrera-etxeko zuzendari eta langile, droga munduko tekniko eta afektatu beraiei galdetu ondoren, guztien hitzetan hiru gauza, alderdi edo hiru behar nagusi azaltzen dira. Lagun-artearen kontzientzia eta jokaera, senideek behar duten informazio eta laguntza eta beraien erreakzioaren garrantzia eta gaur egun hauetako zenbait gaixok behar beharrezkoa duten bizileku bat.

Egia da zenbait gauzatan ezin dugula ezer askorik egin, baina azaldu diren hiru jokaera eta behar

zehatz horietan zeregin handia dugu guztiok.

Hasteko, erabat beharrezkoa zaigu guztioi, gaixotasun honek guregan sortzen dituen sentimendu eta erreakzioak kaleratzea bestela ezinezkoa izango zaigu elkarrekin bizitzea eta lan egitea.

Herri txikiek ondo dakite behar baten aurrean erantzun bateratu bat ematea zer den, askotan hori egin baitu gure herriak. Baina egia da, baita ere gure herri txikietan besteen arazoak "kotilleo" mailan bizitzen ditugunean zein gutxi lagundu eta zenbateko kaltea egiten dugun, ondo dakigula.

Sidaren egoerak guztion laguntza eta kontzientzia hartzea eskatzen du eta lehenengoz konfidantza osoa sortuko duen jokaera nagusi bat hartu beharrean gaude.

Adiskidetasuna eta laguntza behar duenari zure etxeko giltzak eman iezaizkiozu. Denok dakigu etxeko giltzak eskaintzen ditugunean zenbat gauza esaten dizkiogun besteari.

- Argitaratzailea**
Elgoibarko Izarra
Kultur Elkarte
☎ 74 16 26
- Laguntzailea**
Elgoibarko Udala
- Zuzendaritza**
Itziar Agirregomezkorta
Alberto Agirreazaldegi
- Hizkuntza Arduraduna**
Anjel Ugarteburu
- Erredakzio kontseilua**
Iñaki Arrieta, Antton Bergara, Edurne Bilbao, Rosa Iriondo, Jose Inazio Sarasua
- Kazetaria**
Ainhoa Lodoso
- Maketatzailea**
Maite Rementeria
- Publizitatearen diseinua**
Luis Mari Zubiaurre
Maite Rementeria
- Publizitatea**
Amaia Leiaristi
- Kolaboratzaileak**
Myriam Aldazabal, Alberto Ansuategi, Isabel Ansola, Joxin Arregi, Belen Arrizabalaga, Agur Miren Barandiaran, Lorea Gorostiaga, Jon Eugi, Hasier Etxeberria, Maite Iriondo, KOKOE, Aitor Lodoso, German Meabebasterretxea, Susana Mugika, Jasone Osoro, Diana Perez de Albeniz, Lorea Perez de Albeniz, Sagundo Raigoso, Andoni Rementeria, Eduardo Sanz, Aitor Zabaleta, Javier Zarzuelo.
- Banaketa arduradunak**
Imanol Larrañaga
Inaxio Garmendia
- Helbidea**
Nafarroa enparantza 2
☎ 74 41 12

Inprimategia
Gertu koop. E.
(Zubillaga Oñati)

Tirada
3.000 ale

Lege gordailua
SS-1.025/92

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

DEKORAZIOA

Ane

**PROIEKTUAK
ERREFORMAK
ALTZARIAK
OPARI GAIK**

Santa Ana 2 Tel: 74 35 09

INTXAURRAGA
zerbitzu aukeratua

•••• SECUC ••••

San Roke 11, Tel. 74 18 37

Ulertu nahi ez duten Kristau maiteei

KAI kolektiboa, adierazpen, elkartzeko eta baita erlijio askatasunaren alde azaltzen da. Bost axola zaigu inork Alarengan, Vuduarengan edo Zeusengana sinesmena izatea nahi badu. Sinesmen horiek manipulatu eta gizarte osoari inposatzen dizkion enpresa da guk onartzen ez duguna: Eliza.

Oso ongi iruditzen zaigu Eliza bezalako instituzio batek, bere historian pertsona gehien erahil dituenetarikoa, Inkisizio garaian monarkiak errepresioa bide politiko bezala erabilia, Gurutzada "santuak" eta Ameriketako kolonizazio-ebanjelizazioa (jatorrizko aberastasun eta kulturen deuseztapenaren inperialismo zapaltzaile hutsa), gosearen eta drogadikzioaren aurkako kanpainak agitea. Baina

egia esan, izugarriko kontraesana iruditzen zaigu alde batetik Eliza gaurregungo egoera mantentzeko sistemaren oinarriko zutabeetariko bat izatea, (bere kideengatik gizakiaren esplotazioa, gosea eta miseria, gartzelak betetzen jarraitzea, etab... suposatzen dituen) eta bestetik, inposaturiko diruaren eta boterearen lege horrek ondorioztaturiko emaitzak ezalitzeko partxeak jartzen jardutea.

Ez dugu onartzen jaiotzaz lehenengo egunetatik erlijio hipokrita eta itxurati baten sarraztea; sekta bat bailitzen berau lagatzen uzten ez diguna. Non dago kontzientzia eta elkartzeko askatasuna?

1991ean 44 elgoibartarrek beraien elizatik deskidetzeko nahiei Gipuzkoako Gotzaitegiaren ezetza jaso zutela oroitarazi nahi dugu, eta 1993an eskaera egin duten hogeitatu bat elgoibartarrei erantzuten ere ez direla nekatu. Hau al da askatasuna?

Bukatzeko, krisialdi erdian "beraien" Eliza konpontzeko diru publikotik hainbeste milioi gastatzearen aurka gaudela adierazi nahi dugu, hile bukaerara iristeko soldata minimoarekin malabarismoak egin behar dituen horrenbeste jende dagoeanean (lanean daudenak). Kontutan hartu Elizak ez diola haziendari ordaintzen, bere "katiximaren" arabera hiritarrak ordaintzera derrigorturik dauden bitartean. Hori da aurpegia! Gainera, etxez etxe intimidazio kanpaina batean diru-eske ibiltzeko.

Parrokoaren etxeari buruz, berari ez zaio krisialdia etortzen eta, konpon dezala bere soldaterekin, oraindik lana daukaten beste hiritar guztiek egiten duten bezala.

KAI-ENE Elizaz Nazkatutakoen Elkarte

Udalari

Sarritan entzun izan dugu pila zaharrak zaka-rrontzietara botatzeak kutsadura sor lezakeela. Erloju, "Nintendo" txikiak eta gisako zenbait jostailuk dituzten pila borobil txiki horiek, batez ere, urarekin nahastean oso kutsakor eta kaltegarri gerta daitezke ingurugiroarekiko zein gizakientzat.

Arrisku hau ikusirik, atseginez ikusiko genuke gure herrian "pilotzi berezi" horietako bat edo beste, etxean baztertuta dauzkagun pilak nora bota ez dugu eta.

Denon mesederako izango delakoan.

J.M.E.

OHARRA:

Hemendik aurrera makinaz idatzita orrialde erdi baino luzeagoak diren eskutitzak ez ditugu onartuko.

Hau da zure iragarkien espazioa

Deitu 74 41 12



24 orduz zuekin

Arrate ☎ 212 (20.600) Eibar
☎ 12 01 61/73 Fax 12 01 73



MAPFRE
ASEGURUAK
Mari Luz Rojo

Mota guztietako aseguruak zure esku


San Frantzisko, 34 Telf: 74 05 82 - 74 14 04



Autoedizio eta Diseinu Grafikoa

Zubiare

Sta. Klara 40-3. Tel: 744444.



Aste honetako erretratua **Kontxi Elustondok** lagatakoa dugu. Jendez gainezka azaltzen zaigun erretratu hau, 1955. urtean Sallobente auzoko Iriarte-Etxeberri baserriko soro barrenean ateratakoa da. Erretratuan azaltzen direnen izen-abizenak esaterik ez daukagunez, erretratuaren zergatia kontatuko dizuegu.

1929. urteko martxoaren 8an, Sallobente auzoko eskolako maistra izendatu zuten Maria Kristina Garcia donostiarra, urtean 1.500 pezeta kobratuz. 26 urtetan bere lanean aritu ondoren, 1955.ean Maria Pilar Alberdi maistrari utzi zion bere tokia, Maria Kristina Udaletzeko telefonista lanak betetzera pasa zelarik.

Horrenbeste urtetan Sallobenteko neska-mutilak ilustratzen ibili ondoren agur esateko orduan ome-

naldi bat egitea pentsatu zuten Maria Kristinaren eskuetatik pasa ziren guztiek; omenaldiari, gehiengotan bezala, denon arteko erretratu batekin eman zioten bukaera.

Egia esan, omenaldia ezezik, monumentu bat ere merezi zuen maistra horrek horrenbeste jenderi eskribitzen, leitzen, sumak, restak eta dibisioak erakusteko izango zuen pazientziagatik.

Gustora jarriko genituzke gaurko irakasle-pedagogogo modernoak zeregin haietan!

Bukatu aurretik, artaldeko artzaia zein zen ere esan beharko dugu. Behekaldeko ilaran, ume artean aulkian jarrita azaltzen zaigun betarrekodun emakumezkoa dugu Maria Kristina.

Egun, Donostian bizi den emakume honek, martxoaren 4an 89 urte bete zituen. ZORIONAK!

- Kontabilitate
- Lan
- Fiskal



**URKIDI
AHOLKULARITZA
ASEGUROAK**

Kalamua 12
ELGOIBAR
Tel-Fax:
74 18 91



**TITZ BIZKAR
ARDOAK**

ARDO ETA PATTARRA
PATATA SALMENTA

Errosario 18
Tel. 74 02 37



INTERIORES

- SUKALDEAK ETA
BAINU ALTZARIAK
- ATE TOLESGARRIAK
- BARRUKO ARMAIRUAK
- DEKORAZIO GAIK

Tel: 74 40 55 - 74 40 19.
Errosario 15 Behea.

Drogaren kontsumoak gorantz egin du Elgoibarren

Drogei buruz asko esan eta idatzi den arren, ez da inoiz haiekiko errespetua galdu behar. Oraingoan, Elgoibarko Drogomenpekotasunaren Prebentziorako Elkartek, ERROTATXOK, drogei buruzko prebentzio eta informazio kanpaina plazaratu du SIADECO enpresak kaleratutako inkesta bat dela eta. Inkestan aipatzen diren zenbait datu, alarmanteak kasu askotan, zehaztuko ditugu jarraian.

Zer gertatzen da Elgoibarren? izenburupean ERROTATXO elkarteak Elgoibarren tokian tokiko drogei buruzko erreflexio prozesua hasi nahi du. Batetik, SIADECOK kaleratutako inkestaren datuei buruzko liburuxka bat banatu du herrian zehar eta, bestetik, arazoaren mamian sakondu ahal izateko mahainguruak antolatuko ditu. Bi bide hauek bateratuz ekintza plangintza batera heldu nahiko luke

ERROTATXOK.

SIADECOn datuetan oinarrituta, ERROTATXOK drogen kontsumoak azkenaldian Elgoibarren izan duen gorakada nabarmentzen du. Urteak pasatu ahala droga motak eta berau kontsumitzeko erak aldatuz joan dira. Kanutoa, anfetaminak, alkohola, heroina eta gero eta gehiago kokaina dira kontsumitzen diren droga ezberdinak.

ERROTATXOren arabera, ondorengo taulek azaltzen duten kontsumo

mailak, neurri txikian bada ere, gure herrian droga salmenta dagoela adierazten du.

SIADECOK egindako inkestaren arabera, astean zehar apenas alkoholik edaten ez bada ere, astebukaeratan eta gazteen artean batez ere, alkoholaren kontsumoa asko igotzen da. 1183 gaztek tamainan edaten du, 557k gehiegi eta 315 gazte, alkoholikoak izan daitezke dagoeneko.

1. taulak grafikoki azaltzen duen bezala, alkohol kontsumoa altua izateaz gain, gero eta gazteago hasten gara alkohola edaten.

ERROTATXOkoen ustez, alkoholarekin bate-



➔ Gazteak gero eta adin gutxian

ra beste droga batzu ere kontsumitzen dira.

Asteburuetan, alkohola eta porroarekin batera gehien hartzen den droga anfetamina da, gero eta gazteagotik gainera. 460 gaztek probatu du inoiz

KONTSUNO MAILA	Elgoibar	E.K.A.
Abstemioak	23,7 %	32,9 %
Tamainan	42,0 %	38,7 %
Gehiegi	21,0 %	18,2 %
Ustezko alkoholikoak	12,7 %	10,3 %

1. Taula

KONTSUMO EGOERAK	EDAN EZ	-1
Senitarteko jaietan	31,7	17
Bazkarietan	82,4	2
Kanpoan(lagunekin)	12,4	5



*Eskulanean
saiatzen gara*

*Pastelak
Tartak
Izozkiak
Bonboiak*

GOZOTEGIA

San Bartolome 34-35 Tel: 74 03 45



ASEGURUAK

San Bartolome 15
Tel. 74 3037



ERROTULAZIOA

☎ 74 39 52
San Antolin 74 37 06



hasten dira edaten.

eta, nagusiek gazteek baino gehiago hartzen dute, 20 urtetik gorakoek batez ere. 232 pertsonak probatu izan du inoiz.

Porroa erretzeko ohitura dutenak edo noizbehinka erretzen dutenak 428 dira eta 1835 gaztek probatu du inoiz. Heroina jadanik ez da apenas hartzen SIDAren eraginatik eta azken aldian sozialki gaizki ikusia dagoelako. Honek gaintzeko drogak arriskuak ez diren sineske-

ria bultzatu du. 917 gaztek probatu du inoiz eta 15ek hartzen du oraindik. Halere, beste indikadore batzuren arabera 30 izan daitezke ohizkotasunez hartzen dutenak.

Alkoholarekin gertatzen den bezala, gero eta lehenagotik hasten dira droga hauek hartzen.

ERROTATXO elkar-teen ustez, garrantzitsua da datu hauekin batera, gure herriko gazteek denbora librean zertan ematen duten jakitea.

4. taulak agertzen duen bezala, gazteek ez dute apenas ekintza kulturaletan parterik hartzen. Gehienek poteoan ematen dute astebukaera eta oso gutxik (%15ak) erabiltzen du Kiroldegia, %85ak gazteak elkartzeko leku baten beharra dagoela uste du.

ERROTATXOK datu hauen ondorio gisa, drogomenkotasunen prebentziorako Udal ekintza plana gauzatzearen beharra azpimarratzen du.

MAIZTASUNA	PORROA	ANFETAK	KOKAINA	HEROINA
Inoiz ez	40,2 %	83,8 %	90,8 %	95,7 %
Probatu bakarrik	31,4 %	7,3 %	5,7 %	1,5 %
Noizbehinka	8,7 %	4,2 %	0,6 %	0,1 %
Aldizka	6,7 %	1,7 %	0,4 %	-----
Ohizkoa	4,9 %	0,7 %	0,1 %	-----
Egunero	2,9 %	-----	-----	0,3 %
Utzi egin du	2,8 %	0,8 %	0,8 %	1,0 %

3. Taula

eta erdiak hartzen jarraitzen du. Halere, benetako kontsumoa datuetan agertzen dena baino altuago izan daiteke.

Kokaina ere gero eta gehiago kotsumitzen da. Prezio garestiegia dela

ASTEKO ADINA				GUZ TIRA
14	15	16	+16	
5,4	13,9	12,8	8,8	100
3,0	3,4	3,2	5,1	100
0,8	27,8	20,8	13,3	100

2. Taula

IHARDUERA	GUZTIRA	MUTILAK	NEKAK	(15-19)	(20-24)	(25-29)
Poteoa	83,8	84,9	82,7	81,9	89,9	77,5
Musika entzun	54,7	51,4	55,8	69,9	60,8	68,9
Kalean egon	48,6	44,9	51,8	51,2	49,8	44,1
Zinemara joan	42,8	51,4	45,0	43,7	45,5	38,3
Kirola	37,0	52,7	22,2	38,1	41,9	29,7
Txangoak	34,9	32,2	37,4	25,6	60,8	43,2
Pub-Dantzalekua	32,4	33,3	31,4	33,0	40,8	21,2
Irakurketa	27,6	22,0	32,8	29,9	22,7	31,6
Hobiak	11,1	14,5	7,9	17,2	8,6	8,1
Ikuskizunak	10,4	10,3	10,4	10,7	9,7	10,8
Liburutegia	1,0	1,1	0,5	0,9	0,7	0,9

4. Taula

GARAY

HARATEGIA
URDAITEGIA

San Frantzisko, 9. Tel. 74 13 92

PITXINTXU

Done Frantzisko, 27
☎ - Fax 74 32 06
20870-ELGOIBAR (Gipuzkoa)

PUB

elgoibar

Bazkal ostean siestarik?

Zalantzarik gabe, nik siestari bai. Askok, denbora galtzea edo zahar eta umetxoen gauza dela pentsa dezakezue. Ni, ostera, siestazale amorratua naiz.



Aurkakoak zaretenok ere, saia zaitzte pixka bat eta gogora ezazue zer egin zenuten Ihauterien ondorengo igandean, edota zer egiten duzuen Urteberri eguneko bazkalostean. Ez al zineten gustora egon?, eta ez dut nik siesta parranda ondorengo biharamonak gainditzeko bakarrik erreibindikatzen, ez, egunerokoa baizik.

Zientifikoek esaten dutenez, pertsona guztiok logure gora-beherak izaten ditugu egunean zehar eta horietako goren bat eguerdi aldera gertatzen da. Zer esanik ez orduan, bapojan eta edan ondoren egokitzen zaigunean. Edo nekea eta stressa jasan ezinik gaudenean, burua despejatu eta presko-presko geratzeko zer hobe, ohea zabaldu eta goxo-goxo mantapean Morfeoren besoetan siesta eder bat egitea baino.

Tamalez, ordea, eta progresoarenean izenean gizartea gero eta okerrago antolatzen da horrelako atsedendidi-

txoak gozatzeko. Ordu-keta itogarriak, bazkalosteko atsedendidiak txakur zaunka bat baino laburragoak direlarik, ez dugu egunero siestatxo bat egiteko aukerarik, bestela...

Sarritan baita ere alperkeriakin erlazionatu ohi da, andaluzen gauza dela esanez. Nik ez dakit andaluzak siesta asmatzaileak izan ziren ala ez, baina hala bada, gora andaluzak!

Bestela zuek esango didazue Lorentzo jaunak bere beso kiskalgariak luzatzen dituenengan, kaleak mikroondasak diruditela, telebista aurrean erdi lo eta jakinako tortikulisarekin geratu beharrean, pertsianak bota eta oheko preskuran sartzea ez dela aukerarik ederrena. Gainera Euskal Herrian, gero eta ume gutxiago jaiotzen dela eta, siesta eder bat egin ondoren lasai-lasai goxotasunean, ez al zaitzue iruditzen umeak enkargatzeko unerik egokiena izan daitekeenik?

Jone Ajuria



Siesta bai ala ez, hau da arazoa. Gai guztiei buruz bezala, denetariko iritziak aurki ditzakegu hemen ere; badaude lokumuxka bat egin gabe bizitzerik ez daukatenak.

Baita, noizbehinka bakarrik siestatxo bat egiten dutenak eta azkenez, siesta egitea ere bururatzen ez zaienak.

Ni, konkretuki, ez naiz siestazalea, baina asteburuko lo falta guztia gainean daramadalarik, ez zait batere erreza izango nire iritzia defendatzea.

Horretan hasi aurretik, ohitura gauza bat dela esan beharko litzateke, baina noski, ohiturak, guk hartzen ditugu eta ohiturak hartzeko daramagun bizimoduak kontutan hartu beharrean gaudela ustedut. Denboraren gorabehera ibiliko gara lokumuxka hori egiteko orduan.

Halere, argi dago, inork ezin duela ukatu, bazkal ondoren modorra deritzon hori sartzen zaionik, ezta nik ere, eta gauez lo gutxi egin dugunean batipat. Onartu beharra daukagu, baita ere, askotan, larunbat eta igandetan batez ere, bapoz bazkaldu ondoren telebista piska bat edota zerbait irakurtzeko asmotan

butakan jartzen garenean, ordu erdi bat ere ez dugula irauten begiak itxi aurretik. Honek gure gorputzak duen beharretariko bat dela pentsarazten digu, eta agian, horrela izango da; nik ez dakit.

Baina, komenigarria al da siesta egitea, honek esnatu ondoren digestioa ondo ez egiteagatik edo izaten dugun ondoez hori, umore txar hori edota mozolokeria edo tontera hori ekarri behar badu?

Bai, bai... ez pentsa urrutiegi joan naizenik, badakit eta ez naizela lehen izendatu ditudan ondorio eskas horiek sufritzen ditudan bakarra. Hau dela eta, ez naiz ni siesta zalea, baina argi gera dadila ez nabilela inor kontentzitzeko asmotan. Hortaz...

Siesta bai ala ez, hau da arazoa, baina ondo pentsa ezazue.

Itziar Goñi

Bazkal ostean siestarik?



Julian Aranberri
53 urte, okina

Egunero botatzen dot siestia. Goizian goiz jaikitzen naiz 3etan lanera eta, gero, 2 ´erdiak alde-
ra, bazkalostian, beste hiru bat ordu egiten ditut.



Jose Jaio
62 urte, taxista

Nik ahal dotenean bai. Preminia daukatelako edo alperkerixiagatik. Ohera sartzen naiz eta orubete edo ordu ´erdi egiten dot.



Lorea Iriondo
32 urte, irakaslea

Nik ez dot egiten ze oso umore txarrez jaikitzen naiz. Gogoia eukitzen dot askotan, baina ez dot lorik hartzen. Besaulkian begiak erdi itxita bost minutuz egoten naiz.



Maria Sangroniz
75 urte, jubilatua

Egunero. Ohean ez baina butakan etzanda lokumuxia egiten dot. Deskantsatzea komeni jatalako, pare bat orduz siestan deskantsatu egiten dot.



Pilar Arriola
24 urte, harakina

Nik ez dot siestarik botatzen. Umore txarrarekin jaikitzen naiz. Lanerako goiz jaikitzen naizenean, hamarrak hamar ´erdieta-
rako ohean nago.



Jorge Hernando
36 urte, langabetua

Ez. Gustatzen jata baina ezin dot. Ez daukat astirik baina euki ezkerotako naban. Behin siestia botatzen hasita, ohera sartuko nintzake.

EIBAR

OSASUNDEGIA

- | | |
|---------------------------|--------------------------|
| 1- Alergologia | 9- Ortodontzia |
| 2- Kardiologia | 10- Otorrinolaringologia |
| 3- Zirugia | 11- Pediatria |
| 4- Zirugia maxilo faziala | 12- Sikiatria |
| 5- Dermatologia | 13- Radiologia |
| 6- Ginekologia | 14- Traumatologia |
| 7- Laborategia | 15- Urologia |
| 8- Barne medizina | |

Urkizu Pasealekua, 11.
(Orbeako Dorrea Lehenengo solairua).
Tfnoak: (943) 12 02 00 - 12 02 04

JAUREGI

INPRIMATEGIA



KATALOGOAK-LIBURUXKAK
INPRIMAKIAK
TIPOGRAFIA ETA OFFSET
LIBURUDENDA-PAPERDENDA

San Frantzisko, 20.
Tel: 74 13 29

Ongizate Sailak hospitaleko materiala bildu nahi du

Udaleko Ongizate Sailak, hospitaleko oheak, elbarrituentzako erroberadun aulkiak eta abarren jabe direnen izen zerrenda bat egiteko asmoa dauka. Aparatu hauek baztertuta edo erabiltzen ez dituztenei luzatutako deia da Ongizate Sailak luzatu duena. Bilduko diren aulki eta oheak beste pertsona batzuek erabil ditzaten izango dira. Beraz, horrelako materiala eman nahiko luketenek, Ongizate Saileko 74 37 36 edo 74 10 08 telefonoetara dei dezakete.

M3 Informatika: praktikotasunaren bila

Gero eta gehiago informatika eta ordenagailuen mundua gure bizitzaren edozein iharduera burutzeko ia beharrezko bihurtzen ari deneko garai honetan, ia mundu guztiak informatika klaseak hartzea pentsatu izan du inoiz. *M3 Informatika*, ordenagailu programei buruzko ikastaroak ematen dituen akademia bat da. Baina akademia honek duen berezitasuna, ikaslea akademiara joan beharrean, beraiek ikaslea dagoen tokira etortzen direla da. Orain Elgoibarraren daude Ubitarteko eliz-lokaletan. Beraiek erabiltzen duten irakaskuntza metodoa guztiz praktikoa da. Ikastaroak duela hilabete hasi ziren eta dagoeneko bi talde daude, bata astelehen eta asteazken arratsaldekoa eta bestea larunbat goizetakoak. Taldeak 7-8 lagunetakoak dira eta klaseetan informatikari buruzko

oinarrizko jakintzak ematen dira. Helburua, informatika modu sinple batetan aurkeztea da eta edonork etxean eduki dezakeen ordenagailuari ahalik eta probetxu handiena ateratzea. Besteak beste, enpresa batean burutu behar den lana, fakturak etb. irakasten da. Ikastaroa bukatu eta ikaslea ordenagailua erabiltzeko gai izatea litzateke helburua.

M3 Informatika akademia, Bizkaia guztian ibili ondoren, Gipuzkoako herrietan dabil orain.



Industria eta enpleguaren aldeko giza katea


Pasa den larunbatean 75-100 bat pertsona bildu zen Plaza Handian "industria eta enplegua" lemapean, ELA, CCOO eta LAB sindikatuen deialdiari erantzunez. Ondoren herriko kaleak zeharkatu zituen giza katea egin zuten, berriro ere Plaza Handian bukatzeko.

Datorren 28rako, Elgoibar-Eibar arteko kotxe karabanaren parte hartzeko deialdia luzatu nahi dute ELA, CCOO eta LAB sindikatuak. Irteera goizeko 10etan izango da.

TXURI BELTZ

Taberna

San Franzisko 38



MEKANOSA

Errosario 30 tel: 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ PLANOEN BIRREGILEAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

Udalbatzak ez zuen onartu talde antimilitaristaren mozioa

Astelehenean, martxoak 16, Rafa Feijoo intsumisoarenganako elkartasuna eskatzen zuen mozioa eztabaidatu zuen Udalbatzak. Mozioa Elgoibarko Talde Antimilitaristak aurkeztu zuen. Feijoo asteartean epaitu zuten Valentzian soldaduzkari eta ordezkero zerbitzuariko uko egiteagatik. Hamalau puntuz osatutako mozio hau, HBk bakarrik onartu zuen oso osorik. EAK antimilitaristen zortzi eskaerari eman zion baietza eta EAJ eta PSOek mozioaren puntu guztien aurkako botoa eman zuten.


Antimilitaristen eskakizunak baztertu ondoren, EAK mozio berri bat aur-

keztu zuen baina gehiengoak ezetza eman zion. Azkenean, EAJren mozioa onartu zen. Jeltzaleen eta EAren botuei esker onartutako eskabideak 1991ean Udalbatzak onartutako akordioak berresten ditu. Akordio hauek, besteak beste, intsumisoenganako elkartasuna adierazten dute.



Felipe Uriarteren Diapositiba emanaldia

Pasa den aste osoan zehar Felipe Uriarte Nepal, Peru eta Indiako mendietan ibili zeneko diapositibak ikusi ahal izan genituen. Felipe Uriarte Pasai Donibanen jaiotako mendizalea aski ezaguna da munduko mendi altuenetan ibili izanagatik. Felipe Uriartek Kantxenjunga, Sagarmatha, Makalu, Ganges inguruko mendietan eta Inken herrian hartutako diapositibak eskaini zituen.



kotxea dohan errebisatzeko aukera

Elgoibarko Kontsumitzailearen Informazioarako Udal Bulegoak, CADEM-Eusko Jaurlaritzarekin bat eginda kotxearen errebisioa dohainik egiteko tailer bat prestatu du. Errebisioa, San Roke auzoko Guardia Zibilarren kuartel zaharrean egin ahal izango da martxoaren 22a eta apirilaren 7a bitartean. Errebisioa amaitu eta CADEM-ek baimendua daukan edozein tailerretara joanez gero, errebisioan azaldutako akatsak konpontzearen esku-lanaren %30eko deskontua egingo da. Errebisiorako eguna eta ordua aldeztatik eska daitezke errebisio lekuan bertan.

Helduentzako heziketa

Eskola graduatu titulua atera nahi dutenek (Helduentzako Heziketa), Kultur Etxeko Kultur zerbitzutik pasa daitezke izena ematera. Epea, apirilaren 30ean bukatuko da eta klaseak irailean hasiko dira.

LOPEZ

IZOZKIAK
CROISSANTAK

San Bartolome 4



Andoni Gisasola
ALBAITEROA

- Medicina orokorra
- Zirugia
- Traumatologia
- Analiak
- Radiologia
- Txertoak
- Baimu antiparasitarioak
- Txakur ileapaindegia

k / Barrena 16 EIBAR Tel. 12 19 86

BATZOKIA
Jatetxea-Taberna

P. Muguruza 8. Tel: 74 08 21

Akonkagua zapaldu duen azken elgoibartarra

Alex Garate fisikaria dugu. Gaur egun, Arjentinan dago, Cordoba hirian zehazki, doktoradu ikasketak burutzen. Baina horrez gain, mendia ere maite du Alexek. Horren proba da

Aconcagua mendi tontorrera iritsi zela pasa den otsailean. Hirugarren elgoibartarra dugu Amerika kontinenteko mendirik altuena lortu duena. Hona hemen bere bidaia.

-Zerk bultzatu zintuen Aconcagua igotzera?

-Aspalditik sentitu dut mendira joan eta tontorrera igotzeko desioa. Erakarren hori zergatik ote den azaltzea ez litzateke lan erraza izango. Mendi tontorretara igotzerakoan neure buruan oreka eta pakea lortzen dut.

Mendi guztiek dituzte berezitasunak; zailtasun eta edertasunak. Horregatik, denak dira interesgarriak. Eta Aconcaguak duen ezau-garririk nabarmenena bere altuera da. Amerika kontinenteko mendirik altuena da bere 6.959 metroekin.

Nik ez nuen orain arte mendi altuetan esperientziarik eta Aconcaguara igotzeko posibilitatea ikusi nuenean ez nuen zalantzarik izan.

-Zein berezitasun ditu mendikate honek?

-Aconcaguak, Amerikako mendirik altuena izanik, mendizale askoren bisita jasan du, batez ere azken urteotan, eta mota guztietako igoe-ra bideak ireki dira. Guk aukeratu genuen bideak, iparraldekoak alegia, ez du inolako zailtasun berezirik. Bere alderdirik ikusgarriena, dudarik gabe, hego paretan da 3.000 metro inguruko desnibela duen parte ia bertikala da, benetan ikaragarria!!

-Zein zailtasunekin topatu zarete?

-Honelako espedizio bat antolatzeko suposatzen duen buruhauste guztiak alde batera utzirik, tontorrera igotzeko aurkitu dugun zailtasun bakarra bere altuera dela esan-

go nuke, horrek dakarren ondorio guztiekin: temperatura oso baxuak (nahiz eta uda izan) eta, batez ere, gorputzean duen eragin gogorra. Andeetako biztanleek esaten duten bezala, "la puna" edo "el apunamiento": buruko minak, debilidadea, arnasa falta,... eta, aklimatazio prozesua ondo egin ezean, buruko edo biriketako edema izateko arriskua.

Arazo horri aurre egiteko modu bakarra preparazio fisiko ona izatea eta aklimatazioa ondo egitea da.

-Zer sentitzen da mendi tontorrera ailegatzen zarenean?

-Normalean, tontorrera iristean, nekea da sentimendu guztien artean nabarmenena. Gailurrera iristean lan ikaragarria behar izaten du; eta horrez gain, sarritan, alturaren eraginagatik burua ez da oso argi egoten. Ni neu behintzat horrela iritsi nintzen; azken metroak mozkortuta bezala egin nituen.

Eta neke horrekin nahasturik, poz eta satisfazio galanta. Azkeneko pausoekin batera hilabete luzeetan egindako amets eta lan guztiak gogoratzen ditut, nigan-dik hurbil egon direnen laguntza eta konfidantza. Tontorra zapaltzeak guzti horri ordainik hobere-na ematen dio eta ez dira falta izaten besarkada luzeak eta mal-koak.

-Hurrengo igoera inportantea, noiz eta nora?

-Momentuz Cordobako mendietara egiten ditugun asteburuetak



"Azkeneko pausoekin batera, hilabete luzeetan egindako amets eta lan guztiak gogoratzen ditut".

irtenaldiekin konformatu beharko dut. Ikusiko dugu noiz dagoen berriz Andeetara joateko denbora eta posibilitatea.

-Azkenik, noiz izango zaitugu elgoibartarren artean?

-Orain ditudan planen arabera hurrengo Gabonetako oporretan izango naiz zuekin, hemengo ikasketetan oporrak hartzen ditudanean.

Eskuminak nere partez Pablo Barrenetxea eta Aitor Esnaola herritarrentzat, ia Nanga Parbateko proiektu horretan zorte ona duten. ANIMO!!!

Myriam Aldazabal

Amagoia Aranburu

Udaltzaingoko sekretarixia

- **Noiz egin dezu negar azken aldiz?**
- Azken aldiz pelikula bat ikusten, "Indotxina". Oso ona iruditu zitzaidan eta malko batzuk bota nituen.
- **Denbora librea zer atsegin dezu egitea?** - Musika entzun, liburuak irakurri eta beste hainbat gauza.
- **Multa asko ordaintzen al dugu elgoibartarrok?**
- Nahiko formalak zarete, bai.
- **Zertan gustatuko litzaizuke lan egitea?** - Egiten dotena atsegin zait baina hortaz aparte ahalegintzen naiz gustoko gauzak egiten.
- **Juergazalea al zera?** - Bai, pixkat bai. Ondo etortzen da behin edo behin juergatxo bat egitea.
- **Zer ezin dezu jasan?** - Jendearen umore txarra eta egoismoak eta biolentzia eta horrelako gauza eskasak.
- **Bete ez dezun amets bat?** - Nere ametsak normalean bete ahal direnak izaten dira. Orduan, bete ezinezkorik momentuz, suertez, ezin dizut esan bat ere .
- **Zer ez zenioke barkatuko lagun bati?** - Laguna baldin bada barkatuko nioke.
- **Noiztik zaude Udaletxean lan egiten?** - Oraintxe bederatzirte bete behar ditut.
- **Lana neketsua al da?** - Ez, ez. Polita da, ondo egiten da.
- **Bikinia ala bainujantzia?** - Egun batzuetan bikinixa eta beste batzuetan bainujantzia.
- **Zenbat urterekin maitemindu zinen lehenengo aldiz?** - Oso gazterik. 13 bat urterekin.
- **Zerk uzten zaitu jota?** - Gauza askok. Jendearen benetako arazo gogorak, horrelakoren batek.
- **Dei asko jasotzen al duzue lapurketak salatzeke?** - Ez nahi genukeen beste. Dei batzuk jasotzen ditugu baina ez beti. Orduan ba bueno...
- **Nor sartuko zenuke egun batez kalabojoan?** - Inor ere ez. Inork ez du merezi kalabojoan sartzea. Nik ezagutzen dudarik behintzat inor ere ez.
- **Zerbaitetaz lotsatzen al zera?** - Bai, bai. Lotsatia naiz, baina hori gauza ona dela uste dut.

Edu Sanz

BERTSOTAN

SAN JOSE EGUNA

Doinua: Erreguetan ari nintzela

Martxoak beti berarekin dauka makinatxo bat albiste negu garaia pasatzen doa ta inor ez dago triste zugaitzak ere bere orriak orain agertzen dituzte San Jose egunak horregatik puztutzen gaitu hainbeste.

Ingurutako zelai guztiak San Jose loraz jantzita makina batek egin behar du mendi aldera bisita aita guztien zaindari dela nola gauden ikasita egun eder bat pasa dezagun txorakeriak utzita.

Jabier Arrizabalaga
Ziarda



XABIER

ILEAPAINDEGIA

Eskatu eguna eta ordua

San Bartolome 13, Tel. 74 19 97

GARATE

JANTZI - DENDA

Bartolome Deunaren Kalea, 13 . Tel: 74 11 29 ELGOIBAR



Lurrindegia

San Bartolome 9 ☎ 74 07 44

Brontzeko domina lortu du Carmen Perea Espainiako txapelketan

Carmen Perea elgoibartarrak brontzeko domina lortu zuen 2 minutu eta 27 segunduko denboraz pasa den astebukaeran Anoetan ospatu zen pista estaliko 800 metrotako Espainiako txapelketan. Larunbatean 800 metrotako finalerdian Carmenek lehen seriea irabazi zuen. Hasieratik lasterketa burua hartu eta 300 metro falta zirenean tira egin eta bakar bakarrik iritsi zen helmugara.

Igandeko finalean hasieratik lasterketa buruan kokatu zen beste korrikalari batzuekin batera. Bi korrikalarik ihes egin zioten eta Carmen hirugarren iritsi zen helmugara, laugarrenari tarte handia atera ziolarik. Carmen Perea, Espainiako Txapelketa batean domina lortu duen lehen elgoibartarra da.

Gipuzkoako Kros Txapelketa eta Joku Eskolarrak

Isabel Ruiz elgoibartarrak laugarren egin zuen Arraten ospatu zen Gipuzkoako Kros txapelketan. Luis Santamariak, berriz, promesa eta senior kategorian parte hartu zuen, seniorretan 30. gelditu zelarik eta promesatan seigarren.

Datorren igandean Unai Arrieta elgoibartarrak Joku Eskolarren barruan ospatuko den Euskadiko Atletismo Txapelketan hartuko du parte Gipuzkoako selekzioko kide bezala.



Pablo Quintano:

"Aurten azken urtea da neretzat"

-Noiztik zabilta futbol salaren munduan?- Betidanik. Talde batean jokatzeko nuen eta kopa mordo irabazi genuen.

Gerora, nire jokalaririk denbora pasa zenean, futbol sala taldea federatu genuen. Udalak izugarritzko laguntza eman zigun eta, urte bukaeran zorrik bageneukan, Udalak hartzen zituen zor haiek bere gain. Orduan, hirugarren mailan geunden eta urte bukaerarako bigarren mailara igotzea lortu genuen.

-Eta orain bi talde daude.- Bai. Udalak bigarren taldea sortzeko eskatu zigun. Bigarren taldearen kargua hartu eta haiek entrenatzen hasi nintzen. Urte horretan, talde bat lehenengo mailara eta bestea bigarren mailara igo zen.

Garai hartan sponsor gabe gelditu ginenez, Udalak diru mordo eman zigun. Horrez gain, Elgoibarko denda eta taberna askok ere dirua eman ziguten eta oraindik ere ematen digute. Guztira milioi t´erdiko aurrekontua dugu.

-Zuzendaritza batzordea uztekoan zabilzala esan digute.

- Bai. Aurten azken urtea izango da. Gauza haiek ez dira betirako izaten.

-Penarik ematen al dizu?

- Gauzak ez dira bapatean



uzten. Lagunak dauzkat eta haiekin kontaktuan jarraitzeko asmoa dut. Nire laguntza beti izango dute.

-Urte hauetan, zer izan da zuretzat gauzarik hobereana?

- Satisfazio handiak izan ditut. Lagun mordo egin dut, leku asko ezagutu ere bai. Gipuzkoako polikiroldegi guztietan ibili naiz. Urte hauetan konturatu naiz Udala, eta jende mordo ere laguntzeko prest dagoela, kirola bultzatzeko prest. Ordainik eskatu gabe dirua ematen dute.

-Nola ikusten duzu futbol salaren etorkizuna?-

Urasandiko futbol jokalaririk denbora pasa zenean, futbol sala taldea federatu genuen. Udalak izugarritzko laguntza eman zigun eta, urte bukaeran zorrik bageneukan, Udalak hartzen zituen zor haiek bere gain. Orduan, hirugarren mailan geunden eta urte bukaerarako bigarren mailara igotzea lortu genuen.

- Adina: 37
- Futbol sala ala futbola: biak
- Hobby-rik?: irakurketa
- Entrenatzaile ala jokalaririk: jokalaririk
- Beste kirolirik: denetarik

IDARRAGA
KAPEAK

Eguneroko errealdia

San Frantzisko 17. Tel. 74 05 33-36 39

ANCHUSTEGUI s.a

ZERAMIKAK

Erakusketa eta bulegoa:
Antonio Arrillaga, 6-8
behea
83 Postakutxa
Tel. 74 33 44 - 74 06 92
Fax 74 37 11

Biltegia:
Arregitorre, 10 - 14 behea
Tel. 74 20 38 - 74 23 71
20870 - ELGOIBAR
Gipuzkoa

ZOBEL ZB

KORTSETERIA, OSAGARRIAK
ETA BARRUKO ARROPA.

San Roke 13 behea. Tel: 74 34 01

Nagusiek pasodoblearekin egiten dute gimnasia

Zahartzarora heltzean pauso geldodun aitona edo amona ximurtuaren irudia etortzen zaigu burura. Kiroldetik gimnasioan pasodoblearen erritmorra gimnasia egiten duten edadetu hauek ez datoz topiko horrekin bat. Klase amaieran mahainguru bat inprobisatu genuen, eta hona hemen zahar-gazte hauek kontatu zigutena:



↳ Inortxok ez zuen argazkitik kanpo geratu nahi izan.

Ezer baino lehen, Joxean Hildalgok, gimnasia irakasleak, banan banan hitzgeitekoko eskatzen die iskanbilarik sortu ez dadin eta hizketaldi guztia grabagailuak ganoraz jaso dezan. Lehenengo galdera bota eta berehala erantzuten du emakume batek. Astean hirutan etortzen direla eta ordubeteko gimnasia saioa egiten dutela. Denetarik egiten dute: gimnasia, oinez ibili, saltaka egin... Berehala beste batek hartzen du hitza eta beraien artean sortu den erlazioaz hitz egiten du. Alkartasun handia dagoela taldean eta handik kanpora ere lagun talde bat osatzen dutela dio.

Bapatean denek batera beraien iritzia eman nahi

dute. Joxeanek hitza hartu eta guztioi ikastaroaren helburuak zeintzu diren azaltzen digu. Alde teknikitik, bi helburu: batetik, osasuna hobetu eta bestetik, denbora pasatu. Gauza ez da ahalik eta urte gehien bizitzea, urte horiek ondo bizitzea baizik. Nere alboan dagoen emakumeak behin eta berriro hizketaldia eteten du eta ingurukoek bakarrik entzuteko moduan loreak botatzen dizkio Joxeani. Mutil zoragarria dela azpimarratzen du behin eta berriz. Gainera urtean birritan, merienda bat ematen die guztiei, eta hori, askotan esan diotela ez hartzeko horrelako kezkarik.

Gutxien gustatzen zaien ariketa fisikoaz galdetzean, aho batez erantzuten dute: abdominalak egitea ez zaie batere gustatzen, noski, ariketa fisiko gogorra baita. Gehien gustatzen zaiena, eta honetan denak bat datoz, pasodobleak dantzatzea da. Taldeko beteranoak hartzen du hitza. Juanito Arrietak 87 urte ditu eta ez du behin ere huts egin. Pasodoblea izugarri gustatzen zaiola esaten du eta "Anparito Roca" pasodoble ezagunak gazte zeneko sasoiak gogorarazten dizkio. Edadeagatik galdetzean berriro ere iskanbila sortzen da. Joxeanek ordena jartzen du. Batek, txantxetan

batazbeste 27-28 urte dutela esaten du. Juanito Arrietaz gain, larogei eta piku urte duen beste emakume bat dago, Dominga du izena.

Juanito Arrietak Seguritate Sozialak horrelako gauzak subentzionatu beharko lituzkeela esaten du konbentzimenduz. Momentuz txandal berriak jasotzeko itxoitearekin nahikoa dutela gaineratzen du Joxeanek.

Kiroldegian gimnasia egiten dutenetik "mejoria" handia igarri dute guztiek. Talde hau osatzen duten 30 inguru pertsonak datorren urtean ere jarraitzeko asmoa dutela esaten dute. Aho batez esan ere.

Tik-Tak
HAUR ERROPA DENDA
Errosario 21, ☎ 74 17 15


CE CRISTALERIA ELGOIBARRESA C. B.
*Bidriera artistikoak
Obra komertzialak
Bainu manparak*
Urasandi 12 beheak
Tel-Fax: 74 04 89



Kimetz: Hizkuntza, kultura eta ohituraren

“Hazi batetik sortzen den INDAR BIZIA.

Euskal Herriko HARITZ eta PAGOA; beren sustrai sendotik hasten diren enbor, adar eta hostoek zain dezaten. Guk maite dugun Askatasuna eta Hizkuntza”. Metafora honen bitartez definitzen dute Kimetzekoek beraien elkartearen izana eta nahia.



SOARTE

Kadeteen Nahaste-Borrasteak arrakasta handia izan du azkenaldian.

Abertzaletasuna eta euskal izatearekin zerikusia zuen guztia bultzatzeko helburuarekin pertsona multzo bat batu eta Kimetz elkarte sortu zuten. Hasieran 45 kide ziren baina, urteak pasatu ahala, 53ra igo da bazkide kopurua. Seguruenik, Elgoibarko elkarterik berriena izango da eta adinez gazteenak gainera. Bazkideak bilera bidez onartzen dira eta bilera guztiak euskaraz egiten dituzte.

Soziedade guztien

artetik Kimetz da emakumeen gaian “modernoen”. Egun bost emakume dira bazkide eta beraien barne araudiak dioenez, emakumeek gizona eskubide berdinak dituzte.

Galdutako ohiturak berpiztearen aldeko dira Kimetzekoak. Elgoibarraren aintzina egiten zen Nahaste-Borrastea 1947. urtean azkenekoz egin ondoren, duela sei urte berpiztu zuten Kimetzekoek. Denbora gutxian oso herrikoi bihurtu da ekainaren 21ean ospatzen

den erdi kirol erdi umore proba hau. Azken urteotatik Nahaste-Borrastearen bi kategoria egon ohi dira, seniorrena eta kadeteena, eta azken honetan lortu duten partaidetza oso altua izan da azken urteotan. Parte hartzaileek bizikletaz, saltaka eta zakua bizkarraren eramanaz burutu behar dute aproba. Horrez gain, Kimetzekoek burutu dute beste zenbait ekintza. Gernikako bonbardaketari buruzko erakusketa egin izan dute eta urtero ber-

tso-afari bat antolatzen dute. Euskal ohiturak berpiztearen nahi horretan, txalaparta, otargintza eta tapizen ikastaroak eman izan dituzte. Orain buruan darabilten proiektua aspaldi egiten zen “Buelta a Ondarroa” berpiztea da. Karmenetan, uztailaren 14an, herriko kuadrilak Elgoibartik atera eta Markina Etxeberrian hamarretakoa egin ondoren Ondarrura heltzen ziren. Ahal baldin bada, aurten egingo dute berriro ere txirridularitza itzuli hau.

MAKAILUA “AJOARRIERO” ERARA

Osagaiak: Kilo 1 erdi makailu, 2 tipula, 4 piper berde, 3 piper txorizero (zikuak), 2 tomate, 2 piper morroi, 6 berakatz pusketa, 24 zigala buztan txiki, olio, gatza, pipermina, piper hautsa eta perejila.

Nola egin: 24 ordu lehenago makailua beretzen eduki eta 8 ordutik

behin ura aldatu. Tomate saltsa egiteko, tipulak txikitu eta oliba oliotan (1º) frijitu. Piper txorizeroak uretan beratzen eduki ondoren haien okela tipulari gehitu eta tomatea bota. Egindakotan, gatza eta piper hautsa eman.

Piper morroiak laban egin eta zuritu. Berakatz

eta pipermina txikitu eta piperrak ebaki ondoren kazula batean frijitzen jarri. 5 minututan eduki eta makailua txiki txiki eginda bota. 3 minutu geroago tomate saltsa eta piperrak, tirak eginda, gehitu. Zigala buztana zuritu eta kazulara bota. Gainera perejila eman eta mahaira atera.

FITXA TEKNIKOA

Sorrera urtea: 1987

Presidentea:

Jose Luis Bollar

Urteko kuota:

12.000

Bazkide kopurua: 53

Berezitasuna:

Elkarte kulturala

Helbidea: Ubitarte 11

Eduardo Arrillagaren argazkiak Europako magazine garrantzitsuenean

The Independent Magazine egunkari ingelesak Eduardo Arrillaga elgoibartarrak Guatemalan egindako hiru argazki argitaratu ditu. 1991. urtean Guatemalara bigarren aldiz bueltatu zen Mayen mundua hobeto ezagutzeko eta bertan *Veterinarios sin fronteras* elkartearekin topo egin eta hauekin hasi zen lanean. Lan horren fruitu dira Londreseko egunkariak argitaratu dituen argazkiak. Guatemalan eza-gutu zuen lagun bati esker lortu zuen Eduardok *The Independent Magazine*ko arduradunekin egotea. Hori pasa den urteko otsailean izan zen. Urtebete pasa da dagoeneko, argazkiak bidali eta argitaratu dituzten arte.


Eduardo Arrillaga oso pozik dago bere argazkiak Europako egunkari garrantzitsuenetariko batean agertu izanagatik. Gainera hobetoen ordaintzen duten egunkarietako bat omen da *The Independent*. Diruaz gain, bertatik bizi den edozein argazkilarirentzat oso garrantzitsua da norbere argazkiak horrelako publikazioetan agertzea. Beste herrialde batzuetako egunkari handietan agertzeko aukera ezin hobeia izan daiteke honako hau. Eduk esan digunez bere desiorik handiena, eta edozein argazkilarirena ere, New Yorkeko egunkarietan azaltzea izango litzateke. Ea zortetik duzun!

THE INDEPENDENT MAGAZINE

12

MODERN TIMES

The last of the Mayas and their pets used to live an unhealthy but idyllic existence. Then the vets came. By Peter Popham. Photographs by Eduardo Arrillaga



Guatemalan, albaiteoekin lanean jardun zuenean ateratako argazkia.

Gozoratu gure helbide berria
Nafarroa enparantza 2 delak.
Edozertarako, Zator!

Fotero
OKINDEGIA
OPILDEGIA

San Frantzisko, 4
Tel. 74 07 35

oizmendi
Tel: 74 00 16
TABERNA

19 Ostirala

12,00 ESKUBALOIA

C. D Elgoibar-Urola Gruas Usabiaga
Tokia: Olaizaga Kiroldegian

17,00-19,30 ZINEA

"El maestro de esgrima"
Zuzendaria: Pedro Olea
Aktoreak: Omero Antoniutti,
Assumpta Serna.

20 Larunbata

12,00 ZAZPIKIREN BILERA

Tokia: Kultur Etxeko Batzar gelan.

19,30 ZINEA

"El último Mohicano"
Zuzendaria: Michael Mann.
Aktoreak: Daniel Day-Lewis,
Madeleine Stowe.

21 Igandea

12,00 ESKUBALOIA

C.D. Elgoibar E.T.-Pulpo Urpe
Tokia: Olaizaga kiroldegian

17,00-19,30 ZINEA

"El último Mohicano"

22 Astelehena

16,30 GARIZUMARI BURUZ-
KO HITZALDIAK

Tokia: Parrokia
Hizlaria: Aita Etxeberria
Frantziskotarra.

Hitzaldiok ostirala arte izan-
go dira ordu eta toki berean.

18,00-21,00 MARRAZKI ERA-
KUSKETA

Antolatzailea: Elgoibarko filatelia
elkartea
Tokia: Kultur Etxea

23 Asteartea

20,00 ANTZERKIA

"Kontrabaxua". Maskarada

Tokia: Kultur Etxeko hitzaldi
gela.

Antolatzailea: Elgoibarko A.E.K.
Diputazioaren laguntzaz.

24 Asteazkena

19,30 HITZALDIA

Gaia: Santiagoko Bidea.
Hizlaria: J.A. Vilaboa erromesa.
Tokia: Kultur Etxea.

25 Osteguna

20,00 KANTALDIA

Txomin Artola
Tokia: Kultur Etxeko Hitzaldi
aretoa.
Antolatzailea: Elgoibarko AEK
Diputazioaren laguntzaz.

26 Ostirala

20,00 KORRIKA 8aren AUR-
KEZPEN PUBLIKOA

Ohorezko hiru korrikalariri ome-
nalditxo.
Tokia: Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

16. Antzerki Jardunaldiak

- Ostirala 19
Agerre Teatroa, "Pantzar".
- Astelehena 22
Teatro Geroa, "Guanahani. La derrota del ocaso".
- Asteazkena 24
Producciones Contemporaneas. S. L., "Los gatos"
- Osteguna 25
Esteve y Ponce, "La verdad está en inglés"

* Funtzio guztiak Eibarko Unibertsitate Laboraleko Antzektokian izango dira gaueko 8,30etan.

Eibar
Eibar

TXANDAK

FARMAZIAK:

- 19, ostirala: BIDASOLO
 - 20, larunbata: BIDASOLO
 - 21, igandea: BIDASOLO
 - 22, astelehena: YUDEGO
 - 23, asteartea: YUDEGO
 - 24, asteazkena: YUDEGO
 - 25, osteguna: YUDEGO
 - 26, ostirala: ORMAZABAL
- OKINDEGIAK:**
- 19, ostirala: FOTERO
 - 21, igandea: BOUTIQUE DEL PAN



Etxebizitzak

Etxebizitza salgai Pedro Muguruza Etorbidean, Maala inguruan.
Informazio gehiago nahi baduzu deitu 74 12 39 telefonora.

Galdutakoak

Izarraitzen, hilak 25 ostegunean, poltsa granate bat galdu nuen. Barruan historia liburu bat eta betaurrekoak zeuden.
Tel. 74 44 51 Carolina Sanchez.

Udaltzaingoak jasotako gauzak: Urrezko eskumuturreko bat, eguzkitako betaurrekoak, emakumezkoen diru poltsa, giltzak, gazteen kazadora, erloju bat, eratzun bat, brotze bat, painelu bat, sonbrero bat.

Lana

Arte ederretako ikasleak (2. maila) GEOMETRIA irakasle bat behar du. Maila altua.
Carolina 74 44 51.

Goizez etxeko lanak egiteko eta ume bat zaintzeko pertsona bat behar dugu.
Deitu 74 36 08 telefonora gauzez, 8-10ak artean.

Ingeniero industrialak **matematika, fisika eta kimikako klaseak** ematen ditu BUP, COU eta FP. Gaztelaniaz.
Tel.: 74 13 11. Javier

Delineante langabetuak orduka edo jornada osoan lan egingo luke.
Deitu 74 34 01 telefonora. Iñaki.

Magisteritza eta administrari tituludun irakasleok, O.H.O., L.H-1 eta euskarako klase partikularrak ematen ditugu.
Deitu 74 04 13 telefonora. Edurne eta Maitane.

Tituludun irakasleak **O.H.O.ko klase partikularrak** ematen ditu.
Alazne Tel.:74 28 53

Salerosketak

"Asolo Super-soft" (42zbk.) botak eta "Softex" txamarra saltzen dut. Prezioaz hitzegiteko,
Aritza 74 05 90.

Bizikleta bat saltzen dut. BH 12 "Kanbio"duna. Prezioa negoziatzeko.
Tel: 945-28 94 81 Deitu 8etatik aurrera.

KARABANA bat salgai. 4-5 pertsona. Prezio interesgarria.
Tel: 74 14 25 (Gauzez)

Gimnasia egiteko tresna saltzen dut. Muskuloak eta hankak indartzeko oso egokia. Prezioa negoziatzeko.
Aitor: 74 22 74 Egun osoz.

ZODIAK bat saltzen dut. Yamaha, 5 zalditako motora. Neurriak: 3 x 1.
Prezioa: 125.000 pta.
Tel.: 19 92 46 (Juanra)

Organu HAMOND bat. 8 baxu, bi teklatu eta sekzio ritmikoduna. 50.000 pzta.
Alberto: 74 14 94

Kontaktuak

21 urteko mutil formal eta sumiso bat 18-25 adineko gazteekin erlazioatuko litzateke, erlazio serioak mantentzeko.
Deitu 74 33 97 telefonora.

Musika egiten duen lagun talde bat gara. Lokalen bat alokatu nahi genuke entsaiuak egiteko. Alokatzeko moduan **lokalik baldin baduzu, deitu 74 33 66 telefonora eta Josurengatik galdetu.**

ASTE SANTU ETA BOST EGUNEKO BIDAIA BEREZIAK

- | | |
|--------------------------------------|------------------------------------|
| X Barcelona | X Pirenaica zirkuitoa |
| X Madrid | X La Alpujarra |
| X Salamanca | X La Garrotxa |
| X Picos de Europa | X El Maestrazgo eta bere kostaldea |
| X Monasterio de piedra Teruel-Cuenca | X Quijoteren Mancha |
| X Konkistatzaileen erruta | X Andorra |
| | X Ebro itsasadarra |
| | X Andalucia |
| | X Bierzo-Los Ancares |



INFORMAZIO GEHIAGO NAHI BADUZU, DEITU:

Toribio Etxeberria,3
EIBAR

11 15 69



kantabria
Jaletxea

- ♠ Ezkontzak
- ♠ Bataioak
- ♠ Bazkariak
- ♠ Despedidak

Tel: 12 12 62 ARRATE-EIBAR

ARTEGI

Martxoak 22 astelehena arratsaldeko 7etan

INAUGURAZIOA

IRUDIA ETA SOINUA

ELEKTRAGAILUAK

SONY

AEG-MIELE-WHIRLPOOL

Zatozte!
Zatozte!
Zatozte!
Zatozte!
Zatozte!

Zuen zain gaude.

San Frantzisko ☎ 74 06 87